

Bidaiako Laguntza Asegurua

Aseguru-produktuari buruz informatzeko kontratu aurreko agiria

Enpresa: Europ Assistance España SA de Seguros y Reaseguros

Produktua: 5J1 FUN



Informazio-agiri hau zure aseguruaren baldintza nagusien laburpena da. Produktuari dagokion kontratu aurreko eta kontratuko informazioa beste agiri batzuetan jasoko duzu. Hortaz, mesedez, irakurri arretaz emandako informazio guztia.

Zertan datza aseguru-mota hau?

Eskaintzen dizugun bidaiako laguntza-aseguruak aisialdiko, ikasketetako eta laneko lekualdaketak estaltzen dizkizu, kontratatutako estaldura-eremuan.



Zer aseguratzen da?

- ✓ Jatorriaren, bizilekuaren edo kontratuaren herrialdetik kanpoko gastu medikoak, 100.000 euroraino.
- ✓ Espainiako gastu medikoak, 2.000 euroraino.
- ✓ Gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz hoteleko egonaldia luzatzea, 1.000 euroraino.
- ✓ Lekualdatutako laguntzailearen hoteleko egonaldiaren gastuak, 1.000 euroraino.
- ✓ Aseguratuaren senitartekoei laguntzea, 100 euroraino.
- ✓ Laguntza juridikoko gastuak aurreratzea, 600 euroraino.
- ✓ Funtsak aurreratzea, 7.000 euroraino.
- ✓ Atzerrian ordaindu beharreko fidantza penalaren zenbatekoa aurreratzea, 12.000 euroraino.
- ✓ Datuak berreskuratzeko zerbitzua, 1.200 euroraino.
- ✓ Ekipajea galdu, hondatu edo lapurtzea, 750 euroraino.
- ✓ Ekipajea atzeratzea, 150 euroraino.
- ✓ Bidaia atzeratzea, 300 euroraino.
- ✓ Hasi gabeko bidaia ezeztatzea, 900 euroraino.
- ✓ Bidaia etetea, 800 euroraino.
- ✓ Erantzukizun zibil pribatua, 30.000 euroraino.
- ✓ Istripu-asegurua, 30.000 euroraino.
- ✓ Hegaldien konexioa galtzea, 90 euroraino.
- ✓ Aire-garraiobidean «overbookinga» edo gainerreserba dela eta bidaia atzeratzea, 300 euroraino.
- ✓ Fakturatu gabeko ekipajea galdu, hondatu edo lapurtzea, 350 euroraino.
- ✓ Garraiobidea galtzea «in itinere» gertaturiko istripuaren ondorioz, 150 euroraino.

- ✓ Loturak galdu direlako ordezeko garraiobidea hartzea, 300 euroraino.
- ✓ Bidaian zehar dokumentuak galdu edo lapurtzea.
- ✓ Ekipajea bilatu eta aurkitzea.
- ✓ Agiriak eta objektu pertsonalak bidaltzea.
- ✓ Aseguratu itzultzea, senitarteko bat ospitaleratu dutelako.
- ✓ Gaixoen eta zaurituen lekualdatze sanitarioa.
- ✓ Aseguratu itzultzea, senitarteko bat hil delako.
- ✓ Aseguratu laguntzaileen itzulera aurreratzea.
- ✓ Laguntzailea itzultzea eta bidaiari berrekitea.
- ✓ Informazio-zerbitzua.
- ✓ Pertsona bat lekualdatzea, ospitaleratu duten aseguruari lagun egiteko.
- ✓ Etxebizitza zaindu eta babestea, lapurreta edo sutea gertatu bada.
- ✓ Aseguratu itzultzea, etxean ezbeharra gertatu delako.
- ✓ Gorpuzkiak lekualdatzea.
- ✓ Adingabeei lagun egitea.
- ✓ Legeari buruzko informazio-zerbitzua.
- ✓ Premiazko mezuak transmititzea.



Zer ez dago aseguraturuta?

- ✗ ESKLUSIO NAGUSIAK
- ✗ Polizak ondorengo eskusioetako batzuk izan ditzake, besteak beste:
- ✗ Aseguru-bermeetatik kanpo daude (bermean berariaz jasota ez badaude) arrazoi hauek direla eta gertatutako kalte, egoera, gastu eta ondorioak:

- ✗ - Hartzailak, aseguruak, onuradunek edo horien kausadunek egindako dolozko ekintzak.
- ✗ - Poliza indarrean sartu aurretik gertatutakoak.
- ✗ - Edari alkoholdunak, substantzia sorgogarriak, drogak edo medikamentuak kontsumitzeagatik sortutako gaixotasunak edo istripuak. Medikamentuen kasuan, sendagileak agindutakoak badira ez da eskusiorik ezarriko.
- ✗ - Gerrak, manifestazioak, matxinadak, herri-mugimendu istilutsuak, terrorismo-egintzak, sabotajeak eta grebak, berdin dio ofizialki aldarrikatuta egon ala ez.
- ✗ - Atomo-nukleoaren eta partikula atomikoak artifizialki azeleratzeak eragindako erradiazioen transmutazioa.
- ✗ - Lurrikarak, uholdeak, sumendien erupzioak eta, oro har, naturaren indarrek eragindakoak.
- ✗ - Aseguruak bere burua hiltzea, bere buruaz beste egiten saiatzea edo bere burua zauritzea.
- ✗ - Bat-batean agertu eta biztanleriaren artean berehala zabaltzen diren izurriteak edo gaixotasun infekziosoak, bai eta airearen poluzioak edo kutsadurak eragindako gaixotasunak ere.



Badago estalduraren murrizketarik?

- ! Estalduran murrizketak izan ditzakete hauek:
- ! - Polizan berariaz jaso ez diren arrisku eta estaldurek edo, polizan jaso badira ere, estalitako eremutik kanpo edo ezarritako kilometro-frankizian gertatzen direnek.
- ! - Aseguru-entitateari aldeztu aurretik jakinarazi ez zaizkion prestazioek eta dagokion baimena lortu ez dutenek, salbu eta jakinarazpena ezinbesteko arrazoiengatik ezin izan bada egin.
- ! - Aseguruak aseguru-entitatearen jarraibideen aurka egindako ekintza edo jarduketek.
- ! - Aseguratutako zenbatekoaren mugarainoko estaldura emango dugu soilik.
- ! - Polizan ezarritako frankiziek.



Non nago babestuta?

- ✓ Kontratutako aukerari dagokion lurralde-eremuan — baldintza partikularretan zehaztu da—.



Zein dira nire betebeharrak?

- ___ Prima ordaintzea.
- ___ Ezbeharraren berri ematea gehienez ere 7 eguneko epean.
- ___ Ezbeharraren ondorioak arintzea.
- ___ Arriskua aldatzen duten inguruabar guztien berri ematea aseguratzaileri.



Noiz eta nola ordaindu behar dut?

Polizaren baldintza orokor eta partikularretan ezarritako epeetan egin behar da ordainketa, bertan adierazitako ordainbidea erabiliz.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Kontratatu diren eta baldintza partikularretan jaso diren egunetan.



Nola hutsal dezaket nire kontratua?

Kontratuaren iraunaldia polizan zehaztutakoa da. Automatikoki luzatzekoa bada, luzatzeari uko egin ahal izango diozu, aseguru-entitateari idatziz jakinarazita, kontratua edo horren luzapenetako bat amaitu baino hilabete lehenago gutxienez.